

ADURTZA IKASTOLA

2020-2021 ikasturtea

IKASGELETARA

ITZULERARAKO

KONTINGENTZIA PLANA



AURKIBIDEA

1-OSASUN NEURRIAK

1.1-KONTINGENTZIA PLAN HONEN HELBURU NAGUSIAK...3

1.2-COVID GELA...3

1.3-NOLA JOKATU BALIZKO SINTOMATOLOGIA AGERTZEN BADU IKASLE/IRAKASLE BATEK...4

1.4-FROGAREN EMAITZA POSITIBOA DENEAN, NOLA JOKATU...5

- 1.4.1-LAN-EGUNETAN BADA...5
- 1.4.2-ASTEBURUAN BADA...6

2-IKASTOLAREN FUNTZIONAMENDUA...7

2.1-IKASTOLAN SARTZEKO ETA IKASTOLATIK IRTETEKO ORDUTEGIA...7

2.2-SARRERAK ETA IRTEERAK...8

*SARRERAK/IRTEERAK MAILAKA AZALDUTA

2.3-IKASLE TALDEAK (TALDE EGONKORRAK)...10

2.4-JOLASTORDUA...11

Jolastokiko espazioen banaketa

Jolastokira joateko ordutegiak

2.5-IKASTOLAREN ESPAZIOAK ETA GELEN ERABILERA. AFOROAK...12

2.6-SUKALDEAREN ERABILERA...13

3-FAMILIAK...13

4-GARRAIOA...14

5-JANTOKIA...18

6-BIGARREN ETA HIRUGARREN ESZENATOKIAK EDO EGOERAK...19

1-OSASUN NEURRIAK

1.1-SARRERA MODUAN

Espazio guztietan:

- ✓ **1,5 metroko gutxienezko distantzia mantenduko da beti, ahal bada.**
- ✓ **Espazio komunetan maskara erabili.**
- ✓ **Eskuak garbitu maiztasunez, espazio berri batera sartu baino lehen, bereziki.**
- ✓ **Gela, bulego eta espazio guztiak maiz aireztatuko dira.**
- ✓ **Arreta jarriko da objektuak ez partekatzeko. Ezinbestekoa bada, desinfektatuko dira behar bezainbeste.**
- ✓ **Aforoak errespetatuko dira. Espazio guztien sarreretan egongo dira markaturik.**
- ✓ **Lurrean markaturiko norabideak ere errespetatuko dira.**

1.2-COVID GELA

-Zuzendaria eta Ikasketa Burua dira Covid arduradunak. Haiek izango dira ESI eta Prebentzio Zerbitzua eta Ikastolaren arteko lotura.

-Keramika gela izango da Covid gela. Honek esan nahi du eskola barruan sintomak dituen ikasle orok bertan egon beharko duela (irakasle batek lagunduta) familiar bat bere bila etorri arte.

-Covid gelan egoteko, irakasle zerrenda bat dago.

-Keramika gela (Covid gela) errez aireztatu daitekeen gela da. Aurten, Covid gela bezala baino ez da erabiliko.

-Covid gelara sartu baino lehen, irakasleak derrigorrez jantzi beharko ditu:

- FPP2 motatako musukoa (gutxienez)
- Pantaila bat

Material hauek Covid gelaren sarreraren ondoan egongo dira eskuragai.

1.3-NOLA JOKATU IKASTOLAN BALIZKO SINTOMATOLOGIA AGERTZEN BADU IKASLE/IRAKASLE BATEK

Sintoma nagusiak: sukarra, eztula, nekea

Noizbehinkakoak: Sudurreko kongestioa, konjuntibitisa, buruko mina, eztarriko mina, beherakoa, gustua eta usaimena galtzea, larruazaleko erupzioak, eskuetako eta oinetako hatzetan kolorea aldatzea.

Irakasleriak sintoma hauek ikusiko balitu gelan, protokoloa martxan jarriko luke.

-Une horretan bertan balizko sintomak dituen ikaslearekin dagoen irakasleak (A irakaslea) haurra aterako du gelatik. Ikasleekiko arreta zuzenean ez dagoen irakaslea joango da haur horren bila, Covid gelara eramateko. Aldi berean, Zuzendaritza Taldeari abisua pasako diote, familiari lehen bait lehen deitu ahal izateko.

-Lan pertsonala egiten (ikaslerik gabe) ari diren irakasleen zerrenda dago. Zerrenda horretan, saio bakoitzean, irakasle zehatz bat izango da Covid balizko sintomak dituen ikaslea zaintzan hartuko duena.

-Zuzendaritza Taldeak familiari deituko dio, familiak hurrengo pausuak eman ditzala:

- Seme-alabaren bila etorri. Ikasle horrek anai-arrebak izatekotan, familiarrak ez ditu azken hauek etxera eraman beharko. Anai-arrebek eskolan jarraituko dute normaltasunez (gure eskolako ESlaren gomendioei jarraituz).
- Anbulatoriari deitu beharko du familiak, eta haren jarraibideak jarraitu.
- OSO GARRANTZITSUA: Froga bat egiteko hitzordua eman bazaio ikasle bati edo etxe berean bizi den norbaiti (ama, aita, neba, ahizpa...) ikaslea eta bere anaia-arrebak etxean geratu beharko dira, prebentzioz, frogaren emaitza negatiboa dela ezagutu arte.
- Hala eta guztiz, beti osasun medikuaren aginteak beteko ditu familiak.

Ikasleen kasuan:

-Adurtza Ikastolari erreferentziatzeko ESI (Erakunde Sanitario Integratua) bat ezarri zaio, hau da, Osakidetzako profesional bat. **Gure ESlarekiko kontaktua zuzena eta etengabekoa izango da.**

Irakasleen kasuan:

-Irakasle batek sintomak balitu etxean ez da lanera etorriko, eta bere medikuari jakitera emango dio bere egoera.

-Irakasle guztiek sinatuko dute Aitorpen Arduratsua izeneko dokumentua. Honek irakasle ordezeko bat eskatzeko aukera baimentzen du, baja medikua izan ez arren, beharrezko froga egiten zaion bitartean.

-Lanean dagoen bitartean nabarrituko balitu sintomak, medikuarekin jarriko da harremanetan bere egoeraren berri emateko eta lana utziko du, prebentzioz.

1.4-FROGAREN EMAITZA POSITIBOA DENEAN, NOLA JOKATU

• 1.4.1-LAN-EGUNETAN BADA

Ikasleen kasuan:

1-ESlri deitu eta informazioa eman* (ikaslearen datu pertsonalak, kontaktua, gelan kokapena...); familiarengandik informazioa lortu eta ESlri bidali horretarako eman zaigun helbide elektronikoaren bidez.

2-Gela horretako familia guztiei korreo bat bidaliko zaie gelan ematen den egoera azaltzeko. Positibo eman duen ikaslearen datu pertsonalak ez dira aipatuko.

Edonola ere, gure ESlren jarraibideen arabera jokatuko dugu une horretan.

ESIk erabakitzen badu ikasle batzuk edo gela osoa konfinatu behar dela, automatikoki familiei abisatuko diegu seme-alabak etxera eramateko etor daitezela, eta esango diegu ESIk emandako aginteen zain geratu behar direla.

Bitarte horretan, umeak ezin dira etxetik atera.

3-Irakasle talde osoari gela horretan gertatu den kasuaren berri emango diegu. Gela horretan sartu diren irakasleen datuak emango zaizkio Prebentzio Zerbitzuari (haiek eskatzen dituzten datuak).

Edonola ere, Prebentzio Zerbitzuaren jarraibideak jarraituko ditugu.

Irakasleen kasuan:

1-Irakasle horrek jakitera emango dio Covid arduradunei (Zuzendaria eta Ikasketa Buruari).

2-Prebentzio Zerbitzuarekin eta ESlarekin jarriko gara kontaktuan, haien jarraibideak jasotzeko. Bere datu guztiak Prebentzio Zerbitzuari bidaliko dizkiogu (telefonoz deituz eta posta elektronikoz).

3-Beti ere, Prebentzio Zerbitzuaren jarraibideen arabera jokatuko dugu.

**Eskura izango ditugu une oro Ikastolako ikasle guztien zerrendak (izen-abizenak, telefonoak, helbideak, jaiotze data), gela bakoitzeko planoa (ikasleen kokapena), jantokiko jankideen kokalekuaren planoa bai eta autobus bakoitzean garraituak diren ikasleen kokapena ere.*

Datu hauek ezinbestekoak izango dira, OSiri beharrezko informazioa eman ahal izateko kasu positibo bat dagoenean.

- **1.4.2-ASTEBURUAN BADA**

Ikasleen kasuan:

1-ESIk emaitza positiboaren konstantzia izango du, eta familiarekin jarriko da kontaktuan. Informazio zuzena lortuko du haiengandik (ikerketa) eta jarraibideak emango dizkie (hamar eguneko berrogeialdia eta froga egiteko beharra).

2-ESIk Zuzendaritza Taldearekin jarriko da harremanetan eta ikaslearen emaitza positiboaren berri emango dio.

3-Zuzendaritza Taldeak ESiren jarraibideak jarraituko ditu. Tutorearekin jarriko da kontaktuan ikasle horri buruzko informazioa jasotzeko (noiz egon den eskolan, noiz ez...), eta ESri bidaliko dio informazioa.

4-Gela horretako familiei korreo bat bidaliko dio Zuzendaritza Taldeak gelan eman den egoera jakinarazteko eta Osasun Sailak kasu hauetan ematen dituen aginteak ezagutarazteko (osasun eta garbiketa neurriak indartu... etxean geratzeko aholkua...)

Emaitza positibo izan duen ikaslearen datu pertsoanalak ez dira emango.

5-Egindako ikerketaren arabera, ESIk erabakiko du beste ikasle batzuk kontaktu estuak izan ahal diren, eta haien familiarekin jarriko dira kontaktuan, lehenengo jarraibideak emateko, pcr frogaren data emateko, etab.

6-Beharrezkoa bada soilik (Prebentzio Zerbitzuak hala ezartzen badu), gela horretan sartu diren irakasleekin harremanetan ipiniko da Zuzendaritza Taldea, eta beraien datuak emango dizkio Prebentzio Zerbitzuari, hala badagokio. Honek baloratuko du kontaktu estuak izan diren ala ez, eta baiezko iritzia bada, haiekin jarriko da kontaktuan jarraibideak emateko, pcr frogaren data komunikatzeko, etab.

Irakasleen kasuan:

1-Irakasle horrek jakitera emango dio Covid arduradunari eta Zuzendaritza Taldeari.

2-Zuzendaritza Taldeak bere datu guztiak bidaliko dizkio Prebentzio Zerbitzuari.

3-Irakasle horren gelako familiei mezu bat bidaliko zaie, hartu beharreko neurriak azaltzeko. Beti ere, Prebentzio Zerbitzuaren jarraibideen arabera jokatuko dugu.

5-Beste irakasle guztiei jakinaraziko diegu.

2-IKASTOLAREN FUNTZIONAMENDUA

2.1-IKASTOLAN SARTZEKO ETA IKASTOLATIK IRTETEKO ORDUTEGIA

- Pandemiak sorturiko egoerak iraundu bitartean, ikastolara sarrerek eta irteerek ordutegi berezi bat izango dute.
- Ikasleak ez dira sartuko aldi berean, era mailakatuan baizik, hiru txandatan.
- Hamar minutuko bi tarte egongo dira, sartzeko nola irteteko.
- Talde bakoitzari ikastolaren perimetroa inguratzen duen hesiko ate bat egokitu zaio. Bertan, aurrerago zehazten diren orduetan, tutoreak edo lehenengo saioa eman behar duen irakasleak egongo dira zain, ikasleei harrera egiteko.
- Irakasle batek hidro gela botako die, eta besteak temperatura neurtu.

Nahaste-borrasteak ekiditeko, ***SARRERAK/IRTEERAK MAILAKA** atalean mailaz maila azaltzen dira ordutegi berezi horiek.

Laburpen moduan:

SARTZEKO ORDUTEGIAK

- 9:20/15:20 - Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak
- 9:30/15:30 - Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasleak
- 9:40/15:35 - Haur Hezkuntza 4 eta 5 urteko gelak
- 9:45/15:35 – Haur Hezkuntza 3 urteko gelak

IRTETEKO ORDUTEGIAK

- 13:20/16:50 - Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak
- 13:30/17:00 - Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasleak
- 13:35/17:05 - Haur Hezkuntza (goizean sartu diren atetik eta orden honi jarraituz: 3 urte B, 4 urte B, 5 urte B (HHko atetik) eta 3 urte A, 4 urte A, 5 urte A (LHko atetik))

2.2-SARRERAK ETA IRTEERAK. BESTE NEURRI BEREZI BATZUK

-Ikasle garraiatuak: autobusetako begiraleei lan-ordutegia luzatu zaie. Honek baimentzen du sarrerak/irteerak egiteko behar den denbora luzatzea.

-Autobusetako begiraleek euren buseko haurrak eramango dituzte dagozkien bilguneetara.

-Bertan, tutoreak edo lehenengo saioa emango duten irakasle espezifikoak egongo dira zain, hurrei harrera egiteko, temperatura hartzeko eta hidro gela botatzeko. Haiekin, hirugarren irakasle laguntzaile bat egongo da.

-Maila bakoitzeko bi geletako ikasleak bi ilaratan jarriko dira, aurretik zehazturiko tokietan eta horretarako markaturik dauden puntu urdinetan banan-banan kokatuz (1,5 metroko distantzia fisikoa ezartzen dutenak).

-Irteteko orduan, familiek hesitik kanpo egon beharko dute.

*SARRERAK/IRTEERAK MAILAKA AZALDUTA:

-HH2 Dantzari Plazan ez dago aldaketarik, baina familiak ezin izango dira eraikuntzan sartu. Bertako bi ateak erabiliko dira, ba A taldearentzat, B taldearentzat bestea.

-HH3 Egokitzapen garaia behin amaituta, 4 eta 5 urtekoekin batera sartuko dira, baina inolaz ere ez nahastuta.

1.txanda: Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. Mailak.

LH 4.MAILAK	
SARRERA IKASTOLAKO EREMUAN 9:20/15:20	Haur Hezkuntzako hesiko atetik
BI ILARAK (SARRERAN)	Bizikleten pasabidean
SARRERA IKASTOLAKO ERAIKUNTZAN 9:25/15:25	Hortik gelara, HHko atetik 4.A lehenengo.
IRTEERA GELATIK 13:20/16:50 IRTEERA HESITIK 13:25/16:55	HHko atetik, sarreran bezala

LH 5.MAILAK	
SARRERA IKASTOLAKO EREMUAN 9:20/15:20	Lehen Hezkuntzako hesitik
BI ILARAK (SARRERAN)	Idazkaritza aurreko pasalekuan
SARRERA IKASTOLAKO ERAIKUNTZAN 9:25/15:25	LHko atetik 5.A lehenengo.
IRTEERA GELATIK 13:20/16:50 IRTEERA HESITIK 13:25/16:55	LHko atetik eta LHko hesitik

LH 6.MAILAK	
SARRERA IKASTOLAKO EREMUAN 9:20/15:20	Jolastokiko hesiko atetik
BI ILARAK (SARRERAN)	Aterpean
SARRERA IKASTOLAKO ERAIKUNTZAN 9:25/15:25	LHko atetik 6.A lehenengo.
IRTEERA GELATIK 13:20/16:50 IRTEERA HESITIK 13:25/16:55	LHko atetik eta jolastokiko hesitik 3.mailakoen atzetik, eskailerak jaisteko.

2.txanda: Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak.

LH 1.MAILAK	
SARRERA IKASTOLAKO EREMUAN 9:30/15:30	Haur Hezkuntzako hesiko atetik
ILARA (SARRERAN)	Bizikleten pasabidean
SARRERA IKASTOLAKO ERAIKUNTZAN 9:35/15:35	Hortik gelara, HHko atetik 1.A lehenengo.
IRTEERA GELATIK 13:30/17:00 IRTEERA HESITIK 13:35/17:05	HHko atetik, sarreran bezala

LH 2.MAILAK	
SARRERA IKASTOLAKO EREMUAN 9:30/15:30	Lehen Hezkuntzako hesitik
BI ILARAK (SARRERAN)	Idazkaritza aurreko pasalekuan
SARRERA IKASTOLAKO ERAIKUNTZAN 9:35/15:35	LHko atetik 2.A lehenengo.
IRTEERA GELATIK 13:25/16:55 IRTEERA HESITIK 13:30/17:00	LHko atetik eta LHko hesitik

LH 3.MAILAK	
SARRERA IKASTOLAKO EREMUAN 9:30/15:30	Jolastokiko hesiko atetik
BI ILARAK (SARRERAN)	Aterpean
SARRERA IKASTOLAKO ERAIKUNTZAN 9:30/15:30	LHko atetik 3.A lehenengo.
IRTEERA GELATIK 13:25/16:55 IRTEERA HESITIK 13:30/17:00	LHko atetik eta jolastokiko hesitik 3.mailakoen atzetik, eskailerak jaisteko.

3.txanda: Haur Hezkuntza

HH 3, 4, 5 urte B	
SARRERA IKASTOLAKO EREMUAN 9:40/15:35 9:45/15:35 3 urtekoak	HHko hesitik
ILARA (SARRERAN)	Bizikleten aparkalekuko pasalekuan
SARRERA IKASTOLAKO ERAIKUNTZAN (GELETARA) 9:45/15:35 9:50 3 urtekoak	HHko atetik Orden honetan: HH4B, HH5B
IRTEERA GELATIK 13:35/17:05	HHko atetik eta hesitik Orden honetan: HH3B, HH4B, HH5B

HH 3, 4, 5 urte A	
SARRERA IKASTOLAKO EREMUAN 9:40/15:35 9:45/15:35 3 urtekoak	LHko hesitik
ILARA (SARRERAN)	Idazkaritzaren aurreko pasalekuan
SARRERA IKASTOLAKO ERAIKUNTZAN (GELETARA) 9:45/15:35 9:50 3 urtekoak	LHko atetik HH4A, HH5A
IRTEERA GELATIK 13:35/17:05	LHko atetik Orden honetan: HH3A, 4A, 5A

2.3-IKASLE TALDEAK (TALDE EGONKORRAK EDO TALDE BURBUILAK)

- Ikasgela bakoitza talde egonkor bat da.
 - Taldeen arteko kontaktu fisikoa ekidin egingo da.
 - Talde egonkor horiek geletan ez ezik, garraioan eta jantokian ere mantentzen dira.
 - Pandemiaren eboluzioak egoera edo eszenatoki aldaketa ekarriko balu, Ikastolara etortzeko lehentasuna izango duten ikasleak Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak izango dira.
- Gainontzeko ikasleak bide telematikoen bitartez garatuko lukete kurtsoa.

2.4-JOLASTORDUA

Jolastokiko espazioen banaketa

- ✓ Ikastolako jolastoki zabala esparru ezberdinetan zatitu egin da.
- ✓ Esparru bakoitzean talde egonkor bat arituko da.
- ✓ Talde egonkor bakoitzarekin heldu bat egongo da.

**(ikusi jolastokiko espazioen kokapena)*

-**ESPAZIO BERDEA** (futbol zelai berdea) hiru esparrutan banatu egin da. Bertan 4.B, 4.A eta 1.A edo 1.B egongo dira (txandaka, 1. mailak)

-**ESPAZIO BELTZA** (futbito zelaia) esparru bat: 6.A

-**ESPAZIO HORIA** (frontoia) bi esparrutan: 3.A eta 3.B


-**ESPAZIO GRISA** (aterpea) bi esparrutan: 6.B eta HHko talde bat

-**ESPAZIO URDINA** (volley+futbito zelaia), 5.A eta HHko bi talde

-**ESPAZIO LARANJA** (saski-baloi kantxa) eta **URDINA** (kolunpioak): 5.B eta HHko talde bat.

-**KOLUNPIOAK**: HHko talde bat

*HHko gelak era errotatorioan mugituko dira, egunero tokia aldatuz.



Adurtza Ikastolako jolastokia(espazioen kokapena)*

Jolastokira joateko ordutegiak

- ✓ Jolastokira joateko ordutegiak ere bereiztuta egongo dira, ahalik eta ikasle gutxien topo egiteko pasabideetan.
- ✓ 10:50-11:20 LH 4., 5. ta 6. mailak
- ✓ 11:00-11:30 LH 3. mailak eta 1. mailak egun batzuetan
- ✓ 11:35-12:15 Haur Hezkuntza eta 1.eta 2.mailak (1.mailak egun batzuetan soilik).

-Egun euritsuetarako ere beste plangintza mota bat dago. Ikastalde bakoitzak aukera izango du kanpokaldera ateratzeko.

Egun horietan, aterpea, frontoia eta zuzendaritza eta bizikleten pasabideak erabiliko dira, jarraian aipatzen den ordutegian:

6., 5., 4. Mailak 10:45-11:05 3., 2., 1. Mailak 11:10-11:30

HH 3, 4, 5 urteko gelak 11:35-12:15 aipaturiko lekuetan.

-Espazio hauek rotatorioak izango dira hilabete batetik bestera (irakasleei bidaliko zaien plangintza hilabeteka)

-Egun euritsu horietan, gelan geratzeko aukera ere egongo da. Tutoreak erabakiko du.

-Gelan dagoen tutorea edo espezifikoa jaitziko ditu haurrak jolastokian dagozkien zonaldera. Bertan egongo da zain jolastoki zaintza duen irakaslea.

2.5-IKASTOLAREN ESPAZIOAK ETA GELEN ERABILERA. AFOROAK

-Ingeles eta Musika irakasleak gelaz-gela mugituko dira haien klaseak ematera.

-Ingeleseko gela, Musika gela, Mundilab gela, Keramika gela (Covid gela) eta sukaldea, printzipioz ez dira ikasleekin erabiliko, ez behintzat klase normalak emateko.

-Gimnasioa eta psikomotrizitate gela erabiliko dira, baina denbora tarte bat utziz desinfektatu ahal izateko. Heziketa Fisikoko klaseak (Lehen Hezkuntza) jolastokian egingo dira, eguraldiak lagundu bitartean.

Psikomotrizitate gela ohikoa den baino erabilera murriztagoa izango du aurrean. Hala eta guzti, Haur Hezkuntzako maila bakoitzak aurrean behin bertaratzea bermatuta izango du.

-Jende gehiago pilatu ohi duten espazioen aforoa hau da:

irakasle gela (8), Ekitaldi aretoa (10), liburutegia (10), ikasleen lau komunak (2)*, bisita gela (6), sukaldea (6, baina kurtsoak aurrera joan ahala, aldaketak egon daitezke).

Espazio hauek une oro egongo dira aireztatuta (jenderik ez dagoenean), eta aireztapen gurutzatua bermatuko da aforoa beteko den uneetan (Formakuntza saio batzuetan).

Irakasleek Irakasle Gela erabili nahi badute kafe bat hartzeko, lau lagun baino gehiago elkartzekotan, ikastolako espazio irekitara joango dira.

*-*1., 2. eta 3. mailako ikasleen komunak goiko biak izango dira. LHko gainontzeko ikasleenak, aldiz, behekoak.*

Irakasleak txandaka eta saio guztietan arituko dira komunen funtzionamendu egokia begiztatzen (arreta zuzena ez duen irakaslea, hain zuzen. Zerrenda bat dago osatuta).

2.6-SUKALDEAREN ERABILERA

- Bazkaltzeko orduan, nork bere gelan egingo du, arriskuak prebenitzeko.
- Azkenengo aholkuen arabera, sukaldea ezin izango da erabili bazkaltzeko.
- Mikrouhina aparatua erabili ahal izango da, baina garbiketa neurriak ondo zainduz (desinfekzioa)
- Pandemiaren egoeraren arabera, arau hauek aldatu ahal izango dira, garaiari egokitzuz.

3-FAMILIAK

- Familiak ezin izango dira ikastolaren eremuaren barruan sartu (hesitik barrura), aurretik baimendutako kasuetan izan ezik.
- Ikastolan sartzeko baimena jasotzen duten familiek prebentzio eta higiene neurriak une oro beteko dituzte (maskarilla jantzi, hidrogela sartzean nola irteteen bota, aforoak errespetatu, 1,5 metroko gutxienezko distantziak gorde, objektuak eskuekin ukitzen ekidin, objektuak ez partekatu)
- Seme-alabak ekartzean, ikastolaren eremua inguratzen duen hesia haurrek, irakasleek eta ikastolako langileek baino ezin izango dute gurutzatu.
- Aurreko puntua dela eta, aurten sekula baino garrantzi gehiago edukiko du puntualtasuna, ikasle bakoitza ate ezberdin batetik sartu eta irtengo dela jakinda.
- Berandu datorren familia ere ezin izango da ikastolaren eremuaren barrura sartu, eta ikasle guztiak geletan egon arte, berandu datorren ikasleak itxaron beharko du Zuzendaritzan, han dagoen irakasleari berandu heldu dela abisatuz.
- **Berandu datozen ikasleak ez dira inolaz ere zuzen joango gelara, aurretik temperatura hartu behar baitzaie eta hidrogela bota.**

- Ikasle guztiei tenperatura hartu eta hidrogela botako diegu eraikuntzara sartu aurretik.
- Familiekiko harremanetarako, bide telematikoez izango dute lehentasuna. Posta elektronikoak berebiziko garrantzia izango du aurrean, eta hemendik aurrera.
- Kasu berezietan soilik, Zuzendaritza Taldeak baimendu ahal izango du familiar baten sarrera.
- Seme-alabak ikastolan sartu ondoren, ez dira taldeak egingo kanpokaldean. Hiru txandetako familiek lekua behar dutenez, ahalik eta azkarren joango dira familiak.
- Coviden positibo eman duen ikaslea ikastolara bueltatu baino lehen, familiak horretarako prestatuta dagoen agiria bete beharko du. Agiri horretan familiak adieraziko du (sinatuz) Osakidetzaren aldetik eskolara itzultzeko baimena daukatela.
- Ikasle bat PCR edo antígeno-frogaren emaitzaren zain dagoen bitartean, inolaz ere ezin izango da etorri eskolara.
- Ume batek Covid sintomatologia aurkezten badu, ezin izango da eskolara etorri.

4-JANTOKIA

Jankideak

Kontingentzia plan hau egitean, Adurtza Ikastolan jantokian izango ditugun ume kopurua 282 ikaslekoa da (86 HHn eta 196 LHn).

Ikasle guztiak hogeit hamar talde egonkorretan banatuko dira. Horretarako, hogeit hamar begirale beharko ditugu*, hau da, talde egonkor bakoitzarekin begirale bat egon dadila, bai jangelan bai eta jolastokian ere, jan aurretik edo jan ondoren (txandaren arabera).

*kurtso hasieran bost begirale falta ziren, eta ondorioz, ezin zen jantokian martxan jarri. Azkenik, bost pertsona horiek lortu genituen.

Txandak

Jantokian bi txanda egingo dira, eta jantokia bi espazio ezberdinetan banatuko da, taldeen artean derrigorrezko distantzia fisikoa mantendu ahal izateko.

-Lehenengo txandaren ordutegia 13:25-14:15 izango da.

Jantokiko espazio batean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4.mailak kokatuko dira Jantokiko beste espazio batean Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko gelako haurrak egongo dira, talde bakoitza dagokion tokian.

-Bigarren txandaren ordutegia 14:30-15:15 izango da.

Jantokiko espazio batean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.mailak kokatuko dira Jantokiko beste espazio batean Lehen Hezkuntzako 1. eta 2.mailako haurrak egongo dira.

- Txanda batetik bestera dagoen hamabost minutuko tartean, beharrezko garbiketa, desinfektaketa eta mahai prestaketa egingo dira.
- Taldeak gelaka mantenduko dira (1.A, 1.B, 2.A...), eta monitore bakoitzak gela horretako kideak baino ez ditu izango ardurapean, talde horri dagozkion mahaietan, hain zuzen.
- Talde bakoitzak bere espazioa izango du, eta beti, toki berean ipiniko da, kurtsoa amaitu arte.
- Txanda batetik bestera, mahaiak eta aulkiak ez dira tokiz aldatuko.
- Bazkal osteko eta aurreko jolastorduan ere, ikasle bakoitza bere taldearekin baino ez da egongo, eta beti aurretik ezarritako gunean.
- Egun euritsuetan arazoa areagotu egin daiteke, eta ikasleak babestuta dauden zonaldeetan taldekatuta egongo dira, beti ere taldeak nahastu barik. Guztiontzako lekurik egongo ez denez, begiraleek aukera izango dute haurrak geletara eramateko.
- Jantokirako sarrera eta irteera momentuetan, taldeak ahalik eta denbora gutxien egongo dira pasabideetan, haur pilaketak ekiditeko. Garrantzitsua izango da puntualtasuna bermatzea eta taldeen arteko koordinaketa egotea, jantokira era ordenatuan joan ahal izateko.

LEHENENGO TXANDA. 13:25-14:15. ESPAZIO 1



3.A, 15 jankide



3.B, 14 jankide



4.A, 13 jankide



4.B, 14 jankide





BIGARREN TXANDA. 14:30-15:15. ESPAZIO 1




6.A, 18 jankide



6.B, 12 jankide





5.B, 18 jankide



5.A, 10 jankide




LEHENENGO TXANDA. 14:30-15:15. ESPAZIO 2




3 urte A,14 jankide

3 urte B,10 jankide



4 urte B,12 jankide




4 urte A,15 jankide



2.B, 14 jankide



2.A, 12 jankide



1.B, 20 jankide



1.A, 15 jankide

5-GARRAIOA

- Autobusen barruan, talde egonkorrak mantenduko dira.
- Garraioko begiraleek eramango dituzte ikasleak dagokien bilgunera, sarrera orduan.
- Irteteko orduan, garraiaturiko ikasleak zonaldeka aipatuta dauden lekuetara joango dira. Zonalde horiek euritik daude babestuta, eta koloreko autobus

batez markaturik. Autobus, edo linea bakoitzak badu kolore bat, toki finko batean kokatuta (eta ikasleek nola begiraleek badakite haien kolorea zein den).

- HHko ikasle garraiatuak irakasle batzuk jasoko ditugu gelatik haien zonaldara eramateko.
- Zonalde bakoitzean begiralea egongo da zain.

6-BIGARREN ETA HIRUGARREN ESZENATOKIAK EDO EGOERAK

1.EGOERA edo ESZENATOKIA

1. egoera hau normaltasunetik gertuen egongo dena izango da. Ikasleak eta irakasleak presentzialki egongo dira eskolan, bete beharreko neurriak era zorrotzean hartuta.

2.EGOERA edo ESZENATOKIA

Egoera hau eman daiteke gela bateko ikasle batzuk konfinaturik daudenean. Kasu honetan, irakasleek gelan dauden ikasleekin betiko moduan lan egingo dute.

Etxean konfinaturik dauden ikasleekin, aldiz, klase telematikoak egingo ditu, jarraian aipatzen den bezala:

HAUR HEZKUNTZA

- Tutoreak familiekiko harreman estua mantenduko du telefonoz edo korreoz, lehenengo momentutik.
- Lehenetasuna, familia eta ikasleen ongizate emozionalari emango zaio.

- Hezkuntza prozesuari dagokionean, “Sites” plataforma izango da erabiliko den sistema. Horren bidez, irakasleak momentu horretan dagokien edukiak landuko ditu.

LEHEN HEZKUNTZA

- Ziklo guztietan, ongizate emozionala landuko da bereziki. Tutorearekiko harremana bermatuko da, teknologia berriek dituzten abantailak aprobetxatzen.
- 1., 2. eta 3. mailatan tutoreak harreman estua mantenduko du etxean konfinatuta dauden ikasleekin.
- Sites plataforma eta korreoa lanak bidaltzeko bidea izango da.
- Lanak jasotzeko, Classroom erabiliko da feed-backa ziurtatzeko.
- 4., 5. eta 6. mailatan Classroom izango da erabiliko den sistema.

3.EGOERA edo ESZENATOKIA

Egoera hau ematen da gela bateko ikasle guztiak konfinaturik daudenean. Bide telematikoak izango dira hezkuntza prozesurako ardatza.

Konfinamenduan jasotako esperiantziaren arabera, ikastolako ordutegi arrunta ezin izango da jarraitu. Etxe guztietan, egoera desberdinengatik, ezinezkoa izango da ordutegi arruntaren barruan bere seme-alaben presentzia bermatzea.

Honek suposatuko du bidaltzen diren lanak eta egiten diren klaseak, familiak erabaki beharko duela haien seme-alabek zer ordutan burutu.

Tutore edo irakasleekiko feed-backa goizeko jardunaldiaren ordutegiaren barruan izango da. Salbuespenak egotekotan, tutorearekin adostuko dira.

HAUR HEZKUNTZA

- Tutoreak familiekiko harreman estua mantenduko du telefonoz edo korreoz, lehenengo momentutik.
- Lehenetasuna, familia eta ikasleen ongizate emozionalari emango zaio.
- Hezkuntza prozesuari dagokionean, *Google Sites* plataforma izango da erabiliko den sistema. Horren bidez, irakasleak momentu horretan dagokien edukiak landuko ditu.

LEHEN HEZKUNTZA

- Ziklo guztietan, ongizate emozionala landuko da bereziki. Tutorearekiko harremana bermatuko da, teknologia berriek dituzten abantailak aprobetxatzen.
- 1., 2. eta 3. mailetan tutoreak harreman estua mantenduko du etxean konfinatuta dauden ikasleekin.
- *Google Sites* plataforma eta korreoa lanak bidaltzeko bidea izango da.
- Lanak jasotzeko, Classroom erabiliko da feed-backa ziurtatzeko.
- 4., 5. eta 6. mailetan Classroom izango da erabiliko den sistema.

Adurtza Ikastolako Zuzendaritza Taldeak, 2020ko abuztua

**2021eko urtarilean azkenengo aginte eta aholkuen arabera eguneratua*